



ZALDIBIKO UDALA
(Gipuzkoa)

MUSIKAESKOLA ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOA.

1. artikulua. Lege oinarria.

Tokiko entitate honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43 eta 49 artikuluek jasotako eskumenak erabilita, prezio publikoa ezartzen du Musika eskolan musika irakasteko zerbitzua emateagatik.

2. artikulua. Helburua.

Udal honek bere biztanleen bizi kalitatea etengabe hobetzeko interesa duenez, eta irakaskintza eta jendarteratzea sustatzeko xedez, musikarekin lotutako hainbat diziplina ikasteko sarbidea errazte eta bermatze aldera, ordenantza honek prezio publiko bat arautzea du helburu Zaldibiako udalerrian musika irakasteko zerbitzua emateko.

3. artikulua. Ordaintzera behartuak.

Ordaintzera behartuak egongo dira musika irakasteko zerbitzua eskatuz beraren onuraz baliatzen direnak.

Eskatzaileek udalerrian erroldatuta egon behar dute, zaintza partekatuaren ardurapeko adin txikikoen kasuetan izan ezik, baldin eta arduradunaren bat udalerrian erroldatuta badago.

4. artikulua. Ordaindu beharra.

Prezio publikoa ordaindu beharra musika irakasteko zerbitzua ematen hasi zenean sortutakoa da. Bestalde, zerbitzuaren eskaintza izena ematen den unetik hasten dela ulertzen da.

Prezioa nahitaez ordaindu beharrari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, zerbitzua edo jarduera ematen edo garatzen ez denean, egoki izango da dagokion zenbateko proportzionala itzultzea.

Zerbitzuaren antolamenduzko beharregatik, ikasleek baja eman ahal izango dute soilik arrazoi justifikatuengatik (gaixotasun, istripu edo antzeko larritasunezko kausak direla-eta). Bajaren jakinarazpena egokitzen den hilabetearen 5a baino lehen komunikatuko da; gainerakoan, hilabete osoa kobratuko da.

Bi hilabeteen jarraian ez ordaintzeak zerbitzuan automatikoki baja ematea ekarriko du.

Ordaindu gabeko erreziboren bat duten ikasleei ez zaie baimenduko beste jardueretan edo zerbitzuetan izena ematea.



ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

5. artikulua. Hobariak

Elkarbitza unitate bereko hirugarren kideari eta hurrengoei prezioaren % 50a aplikatuko zaie.

Taldea osatzeko garaian ikasle kopuruaren ratioa dela-eta Itsasondo, Legorreta edo Idiazabalera joan beharra izango duten ikasleei edo interesatuei prezioaren % 90a aplikatuko zaie.

6. artikulua. Kudeaketa eta ordaintzeko modua.

a) Ikastaroak 10 hilabeteko iraupena izango du, irailetik hasi eta ekainera bitartekoa. Izena emateko eskaria eta ikastaro bakoitzeko matrikularen ordainketa zenbatekoaren egiaztagiria (aldez aurretik gordailuan) Zaldibiago Udalean ekainaren 1a baino lehenaurkeztu beharko dira.

b) Musika Eskolan izena eman duten ikasle guztiek kuota bakar bat ordainduko dute "matrikula" kontzeptuan eta "hileroko kuota" duten ikasle guztiek hileroko hamar kuota ordainduko dituzte irailetik ekainera bitartean (bi hilabeteak barne).

Hileroko kuotak banku helbideratze bidez ordainduko dira.

Zerbitzuaren kuota hilabete bakoitzean, 15ean, ordaindu beharko da.

Eskolak beste edozein material gehigarriren bat ematen badu, beti kobratuko da banku helbideratze bidez.

c) Zerbitzuaren onuradun gisa izen ematea berritzeko automatikoki egingo da, non eta ez den baja emateko asmoaren jakinarazpena komunikatzen, betiere ikasturtea hasi aurreko ekainaren 1a baino lehen, eta kuota kobratu egingo da artikuluko honetan adierazten den moduan.

7. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak edo zigorrak.

Ondoz ondoko bi kuota ordaindu gabe uztea zerbitzuan baja emateko arrazoia izango da, sortutako eta kobratu gabeko kopuruak premiamendu bidez kobratzeko eragozpenik gabe.

Gainera, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hori osatu eta garatzen duten xedapenetan jasotako arau hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

8. artikulua. Tarifak.

Eranskinean araututa daude.

Azken xedapena.



ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean eta hori aplikatuko da indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

Ordenantza hau Udalbatzaren 2018ko urriaren 23ko bilera arruntean onartu zen

1. Eranskina/Anexo 1

ZERBITZUAK	PREZIOAK/PRECIOS
MATRIKULA	44,70 €
MUSIKA TAILERRA 1º,2º	36,10€
HIZKUNTZA MUSIKALA, HASTAPENA, MUSIKA TAILERRA 3º	54,20 €
MUSIKA TRESNA, KANTO, HARMONIA	54,20 €
KANTOA PIANOKO LAGUNTZAREKIN	67,80€